HAPO
PGOU
GETXO

# Txostena, Getxoko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra berrikusteko I. fasearen (aurretiko azterketen) ondorio eta ekarpen nagusien gainekoa

## AURKIBIDEA


Partaidetzari buruzko datuak.................................................... 3

Aurretiko oharrak: metodologia ................................................ 3

Multzo bakoitzeko ekarpen garrantzitsuak................................. 5

A multzoa: udalerri-eredua ....................................................................... 5

A.1. Daukagun udalerri-eredua ................................................................... 5

A.2. Nahi dugun udalerri-eredua.................................................................. 6

B multzoa: hiri-hazkundea eta -dentsitatea................................................ 6

B.1. Hiri-egitura trinkoak edo zabalak ......................................................... 6

B.2. Hiri-lurzoruaren dentsitate-tipologia...................................................... 7

B.3. Lurzoru urbanizagarriaren dentsitate-tipologia ........................................ 8

C multzoa: lurraldearen antolamendua ........... ¡Error! Marcador no definido.

D multzoa: arte- eta arkitektura-ondarea.................................................... 9

E multzoa: sistema orokorrak ..................................................................... 9

## Partaidetzari buruzko datuak

**Web-foroetako partaidetzari buruzko datuak:**

**Lan-saioetako partaidetzari buruzko datuak:**

| **Datu absolutuak** | **Titularrak** | **Ordezkoak** |
|---|---|---|
| Parte hartzeko jarraibideak jaso dituen jendea. | **73** | **95** |
| Parte hartu duten erabiltzaileak. | **49** | **27** |
| Item kopurua. | **45** | **806** |
| Balorazioak, guztira. | **1.466** | **24** |
| Iruzkinak egin dituzten erabiltzaileak. | **38** | **234** |
| Iruzkinak, guztira. | **347** | **95** |

| **Datu erlatiboak** | **Titularrak** | **Ordezkoak** |
|---|---|---|
| Foroetan parte hartu duten erabiltzaileen portzentajea. | **%67,1** | **%28,4** |
| Iruzkinak egin dituzten partaideen portzentajea. | **%52,1** | **%25,3** |

**Lehengo saioaren parte hartze datuak:**

-Lehenbiziko lan-saioa (2013ko maiatzak 16): **65.**

**Eztabaida saioaren datuak (2013ko ekainak 6):**

| | |
|---|---|
| Parte hartzaileak | **52** |
| Eztabaidatutako gaiak | **9** |

## Aurretiko oharrak: metodologia

Orain azalduko ditugu deliberaweb foroetan eta bertaratzeko deliberamendu-saio batean parte hartu zuen Lantaldearen baieztapenak (adostasun-mailekin) eta ekarpen nagusiak.

Deliberaweb foroan 23 baieztapen jarri genituen baloratzeko; gehienak ziren partaideek lehenbiziko saioan egindako iruzkin espezifiko eta orokorren ondorioz sortutako proposamen gehigarri eta osagarriak.

Bigarren saioan, ekainaren 6an, esku-hartzea bizia izan zen eta **bederatzi baieztapen** landu genituen sakon, guztiak hasieran aurreikusitakoak; gehienak gehitutako baieztapen berrietan planteatutako gaiei buruzkoak ziren. Baiztapen horietatik 3., 2. naren berridazketa bezala sortu zen eztabaidatzerakoan.

Saioan landu genuen edukia web-foroetan aurrez jasotako balorazio eta iruzkinen emaitza zen, hain zuzen. Sintesi-proposamenak eta baieztapen berriak egiteko kontuan hartu genituen, baita ere, ordezkoen taldeak egindako balorazioak eta ekarpenak.

Multzo guztietako baieztapen eta gaiak landu genituen, salbu F multzokoak; izan ere, multzo horretan xehetasunak daude bilduta eta horiek partaidetza-prozesuaren hurrengo faseetan landuko dira (aurre-aurrerapenean eta aurrerapenean).

A multzoan bi sintesi-baieztapen daude, gai hauei buruzko lehentasun-mailen gainekoak:

**A.1. Daukagun udalerri-eredua.**

**A.2. Nahi dugun udalerri-eredua.**

B multzoan hiru sintesi-baieztapen daude, gai hauei buruzkoak:

**B.1. Hiriaren forma trinkoak edo zabalak.**

**B.2. Hiri-lurzoruaren dentsitate-tipologia.**

**B.3. Lurzoru urbanizagarriaren dentsitate-tipologia.**

Baieztapenaren gainean adostasun-maila bakarrik eskatu genuen kasuetan, baieztapen berri bat proposatu dugu, kontuan hartuta foroetan eta bileran jasotako iruzkin eta balorazioak (C eta E multzoak).

Azkenik, C, D eta E multzoetan, adibideak, ereduak, formak eta abar zehaztea eskatzen zenez, partaideek gai bakoitzean egindako proposamenak jaso ditugu, letra lodiz idatzita.

Multzo bakoitzean azaldu ditugu, batetik, web-foroetan jasotako hasierako adostasun-maila; eta bestetik, proposatutako sintesi-baieztapen berria edo baieztapenaren adierazpen berria, deliberamendu-saioan jasotako onarpen/lehentasun-mailarekin batera. Erantzunak errazago kontatzeko, balorazio berdetzat hartu genituen ez ziren txartel guztiak, baita abstentzioak ere. Irizpide hori lehenbiziko zazpi baieztapenetan aplikatu genuen. Azkeneko bi baieztapenetan ez genituen abstentzioak (txartelik jarri ez zuten partaideak) kontatu.

Web-foroetan jasotako ekarpen/ideia garrantzitsuak **letra lodi beltzez** jarri ditugu eta deliberamendu-saioan jasotako ekarpenak **letra lodi urdinez**.

<u>Adibidez:</u>

**A.2. Nahi dugun udalerri-eredua.**

Web-foroetan parte hartu zuten gehienen iritziz eredu mistoa da hiri-eredu egokiena, eta adostasun-maila hau da:




Balorazioak: **37**.

Web-foroetan jasotako balorazio eta iruzkinak oinarri hartuta, **sintesi-baieztapen hau proposatu** genuen:

**Dudarik gabe, eredu mistoa nahi dugu, hainbat erabilera uztartzeko: merkataritza eta zerbitzuak, erabilera industrial bateragarria eta nekazaritza-bizitegi eta -ekipamenduak / espazio zabalak. Auzo eta biztanle-multzo guztietan gizarte-kohesioaren alde egingo duen eredua nahi dugu.**

[2]

Hona hemen bertaratzeko saioan baieztapen berriaren inguruan txartelen bitartez jasotako adostasun-mailak:




Balorazioak: 49.

## Multzo bakoitzeko ekarpen garrantzitsuak

### A multzoa: udalerri-eredua

*[Lantaldeko partaide batzuk adierazitakoaren arabera, “hiri-eredu”ren ordez “udalerri-eredu” jartzea proposatu genuen, ereduek eta haien ezaugarriek udalerri osoa hartzen dutelako, ez hiria bakarrik.]*

### A.1. Daukagun udalerri-eredua

Foroetan parte hartu zuten gehienen iritziz udalerria **eredua mistokoa** da; adostasun-maila hau izan zen:




Balorazioak: **40**.

Web-foroetan jasotako balorazio eta iruzkinak oinarri hartuta, **sintesi-baieztapen hau proposatu** genuen:

**Gaur egun, Getxoko ondare historikoa dela eta, udalerri-eredu mistoa daukagu, baina auzo bakoitzak bere bereizgarriak dauzka. Getxo batik bat lo-hiria da eta zerbitzu- eta merkataritza-sektoreak dira nagusi; lehen sektoreak (nekazaritza eta arrantza) eta bigarren sektoreak (industria) pisu gutxiago dute.**
[1]

Hona hemen baieztapen berriaren inguruko adostasun-mailak:




Balorazioak: 46.

Aurreko proposamenaren gainean egindako ekarpen eta iruzkinak kontuan hartuta, beste balorazio-txanda bat egin genuen eta hauek izan ziren sortutako baieztapenak eta adostasun-mailak:

Gaur egungo eredua funtsean **mistoa** da.

Baieztapenarekin ados zeuden partaideak: 27.

Gaur egungo eredua funtsean **lo-eredua** da.

Baieztapenarekin ados zeuden partaideak: 12.

Gauzak horrela, esan dezakegu partaide gehienek uste dutela, batetik, **Getxoko udalerriko eredua mistoa dela, baina auzo bakoitzak bere bereizgarriak dauzkala; bestetik, Getxo batik bat lo-hiria dela; eta azkenik, zerbitzu-eta merkataritza-sektoreak direla nagusi eta lehen sektoreak (nekazaritza eta arrantza) eta bigarren sektoreak (industria) pisu gutxiago dutela.**

## A.2. Nahi dugun udalerri-eredua.

Foroetan parte hartu zuten gehienen iritziz **eredu mistoa** da egokiena eta gehienek eredu hori nahi dute; adostasun-maila hau izan zen:




Balorazioak: **37**.

Web-foroetan eta bileran jasotako iruzkinak oinarri hartuta, **sintesi-baieztapen hau proposatu** genuen:

**Dudarik gabe, eredu mistoa nahi dugu, hainbat erabilera uztartzeko: merkataritza eta zerbitzuak, erabilera industrial bateragarria eta nekazaritza-bizitegi eta -ekipamenduak / espazio zabalak. Auzo eta biztanle-multzo guztietan gizarte-kohesioaren alde egingo duen eredua nahi dugu.**

[2]

Hona hemen baieztapen berriaren inguruan bertaratzeko saioan jasotako adostasun-mailak:




Balorazioak: 49.

Adostasuna handia zen arren, beste balorazio-txanda bat egin genuen eta, Lantaldearen iruzkin eta ekarpenak aintzat hartuta, baieztapen berri bat proposatu genuen:

**Lurzoruaren erabilera anitzak zentzuz eta modu eramangarrian uztartzen dituen eredu mistoa; auzo eta biztanle-multzo guztietan gizarte-kohesioaren alde egiten duen eredua.**

[3]

Hona hemen proposatutako baieztapen berriaren inguruko adostasun-mailak:




Balorazioak: 52.

Beraz, esan dezakegu partaide gehienen iritziz udalerriko **ereduak mistoa izan behar duela, lurzoruaren erabilera anitzak zentzuz eta modu eramangarrian uztartzen dituen eredu mistoa; auzo eta biztanle-multzo guztietan gizarte-kohesioaren alde egiten duen eredua.**

## B multzoa: hiri-hazkundea eta -dentsitatea

[*Hazkunde kontzeptua konplexua eta desegokia denez, beste izenburu bat jartzea proposatu genuen:* ***"Hiri-egitura trinkoak edo zabalak"***]

## B.1. Hiri-egitura trinkoak edo zabalak

Partaide gehienek **egitura trinkoa** aukeratu zuten garapen-eredu idealtzat.

1. **Egitura trinkoa.** Hau da, lurzoru naturala ahalik eta gutxien hartzea; erabilera eta jarduerak nahastea; gizarte-kohesioa, garraio publikoa eta oinezkoen mugikortasuna sustatzea; eramangarritasuna eta energia aurreztea bultatzea; nukleo askoko hiri bat sortzea.

(31 / %79) (7 / %18) (1 / %3)

Balorazioak: **39**.

Foroetan eta bertaratzeko saioan jasotako balorazio eta iruzkinak kontuan hartuta, **sintesi-baieztapen hau proposatu** genuen:

> Egitura trinkoa da egokiena, hau da, lurzoru naturala ahalik eta gutxien hartzea, erabilerak eta jarduerak nahastea, **mugikortasun aktiboa (oinezkoak, txirrinduak…)** eta garraio publikoa sustatzea, **baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea**, energia aurreztea, nukleo anitzeko hiri bat eratzea, **gizarte-kohesioa eta -lotura bultzatzea**, **banakoen eta kolektiboen arteko elkarrekintzak eta sareak ardatz hartuta, biztanleen premiei erantzute aldera.**

[4]

Hona hemen proposatutako baieztapen berriaren inguruko adostasun-mailak:

(48 / %92) (4 / %8)

Balorazioak: **52**.

## B.2. Hiri-lurzoruaren dentsitate-tipologia

Foroetako partaide gehienek **dentsitate ertaina** aukeratu zuten **(hektareako 50-75 etxebizitza)** hiri-lurzorurako dentsitate ideal gisa.

3. Batez besteko dentsitatea (hektareako 50-75 etxebizitza).



(21 / %66) (7 / %22) (4 / %13)

Balorazioak: **32**.

Web-foroetako emaitzak eta iruzkinak kontuan hartuta, **sintesi-baieztapen hau proposatu** genuen:

> **Dentsitate ertaina da egokiena (hektareako 50-75 etxebizitza), dentsitate txikiaren eta oso handiaren aldean.**

[5]

Hona hemen proposatutako baieztapen berriaren inguruko adostasun-mailak:




Balorazioak: **52**.

## B.3. Lurzoru urbanizagarriaren dentsitate-tipologia

Foroetako partaide gehienek **dentsitate ertaina** aukeratu zuten **(hektareako 50-75 etxebizitza)** hiriko lurzoru urbanizagarrirako dentsitate ideal gisa.

3. Batez besteko dentsitatea (hektareako 50-75 etxebizitza).






Balorazioak: **29**.

Web-foroetako emaitzak eta iruzkinak kontuan hartuta, **baieztapenaren sintesi-proposamen hau** egin genuen:

**Dentsitate ertaina da egokiena (hektareako 50-75 etxebizitza), dentsitate txikiaren eta oso handiaren aldean.**

[6]

Hona hemen proposatutako baieztapen berriaren inguruko adostasun-mailak:




Balorazioak: **52**.

---

## C multzoa: lurraldearen antolamendua

Web-foroetan aurkeztutako item batzuetan partaide asko ez zeuden ados. Hona hemen 1. itemaren emaitza:

1. Lurraldearen antolamenduak (LPP eta LPS) egoki babesten du gure ingurune fisikoa.




Balorazioak: **38.**

Asko zirenez ados ez zeudenak, beste baieztapen bat proposatu genuen, Lantaldeko kideek egindako ekarpenekin:

**1. Lurraldea antolatzeko tresnek (LPP eta LPs) ez dute babesten ingurune fisiko eta naturala, eta, babesten badituzte ere, ez dira behar bezala betetzen. HAPOk egoera hori hobetu behar du.**

[7]

Hona hemen proposatutako baieztapen berriaren inguruko adostasun-mailak:




Balorazioak: **52.**

Multzo honetako 3. itemean babesteko dauden leku garrantzitsuak bildu ziren:

**Andra Mari (babes berezia behar du, ziurtatzeko, batetik, paisaia osatuko dutela etxe, baserri, zelai, baratze, heskai eta basoek; eta bestetik, biodibertsitateari eutsiko zaiola), Barinatxeko dunak, La Bola hondartza, Abra, Azkorriko kostaldeko korridorea, Baserri bailara, Galeako itsaslabarrak, Aiboako zuhaiztia, Gobela ibaiaren ibilgu berria eta geratzen diren berdegune guztiak.**

## D multzoa: arte- eta arkitektura-ondarea

Multzo honetan, partaideek (web-foroen bitartez eta bileran) babestu beharreko eraikin eta eremuen zerrenda bat egin zuten.

Hauek dira partaideen iritziz babestu eta arte- eta arkitektura-ondaretzat hartu behar diren lekuak:

**Getxoko baserriak (batzuk XVI. mendekoak dira), ur-errotak, garbitokiak, Erromoko Nagusien etxea eta Euskaltegia, herriko frontoia eta plazako kioskoa.**

## E multzoa: sistema orokorrak

Web-foroetan aurkeztutako item batzuetan partaide asko ez zeuden ados. Hona hemen 1. itemaren emaitza:

1. Gaur egun hiri-lurzoruan dauzkagun espazio zabalen, hau da, udalerri osoarentzako edo, behintzat, auzo batentzako baino gehiagorentzako diren parkeetako (adibidez: Zugazarte, Campa del Loro, Generatxu, Urkijobaso eta Usategiko) sistema orokorrak nahikoa dira.




Balorazioak: **35.**

Asko zirenez ados ez zeuden partaideak, beste baieztapen bat proposatu genuen, Lantaldeko kideek egindako ekarpenekin:

1. Gaur egun hiri-lurzoruan dauzkagun espazio zabalen, hau da, udalerri osoarentzako edo, behintzat, auzo batentzako baino gehiagorentzako diren parkeetako (adibidez: Zugazarte, Campa del Loro, Generatxu, Urkijobaso eta Usategiko) sistema orokorrak **ez** dira nahikoa. **Jende gehiago bizi den lekuetan faltan daude (Algortan eta Areetan),** eta **segurtasuna hobetu eta sarrera erraztu beharko lirateke.**

[8]

Hona hemen proposatutako baieztapen berriaren inguruko adostasun-mailak:




Balorazioak: **52**.

Halaber, 3. itema aldatu egin zen, partaide asko ez zeudelako ados (web-foroak):

3. Bidegorriei dagokienez, LPParen arabera, Lamiakon eta Aizkorrin loturak egin beharra daude. Lotura horiek, gaur egun dagoen sarea eta egingo diren zati berriak (automobilekin batera ibiltzekoak) kontuan hartuta, ibilbide berriak jarri behar dira (adierazi zer ibilbide, “iruzkinetan”).




Balorazioak: **31.**

Lantaldeko kideen iruzkin eta ekarpenak aintzat hartuta, baieztapen berri bat proposatu genuen:

3. Bidegorriei dagokienez, LPParen arabera, Lamiakon eta Aizkorrin loturak egin beharra daude. Lotura horiek, gaur egun dagoen sarea eta egingo diren zati berriak (automobilekin batera ibiltzekoak) kontuan hartuta, **sare funtzional eta seguru bat sortu** behar da, eta **irisgarritasun-araudia bete**, **bizikleta, aisiarako ez ezik, ohiko joan-etorriak egiteko ere erabiltzea sustatzeko**.

[9]

Hona hemen proposatutako baieztapen berriaren inguruko adostasun-mailak:




Balorazioak: **52**.

Horrez gain, multzo honetako 3. itemean partaideek web-foroen bitartez eta bertaratzeko bileran proposatutako bidegorri-zati berriak jaso genituen:

**Los Chopos eta Ereaga lotzea eta Algortatik Ereagara bizikletaz jaitsi ahal izatea, malda handia den arren.**

**Beste zati batzuk: Sarrikobaso, Andra Mari kiroldegia, Geroa/Europa – Maidagan, Gobela Ikastola eta Artaza Gane auzoa (Leioa), Ollaretxeko zuzena eta bidegorria gertu daukaten ikastetxe guztiak.**

* * *

**Hemen azaldu gabeko gainerako baieztapenek adostasun-maila handia zuten deliberaweb foroan** edo, bestela, baloratutako baieztapenetan jasotako edo hurrengo faseetan sakonago jorratzeko elementu zehatzei buruzkoak ziren. Hurrengo eranskinena baloratu gabe geratu ziren 15 baieztapenak agertzen dira, taldeetan multzokaturik.

# Eranskina

Hemendik aurrera baloratu gabe geratu ziren 15 baieztapenak agertzen dira, taldeetan multzokaturik. Batez ere web foroan agertutako lantaldearen kideen ekarpen eta iruzkinekin landutako baieztapenen beste proposamen batzuk aurkezten dira.

Web-foroetan jasotako ekarpen/ideia garrantzitsuak **letra lodi beltzez** jarri ditugu; deliberamendu-saioan jasotako ekarpenak **letra lodi urdinez** eta kentzeko esan zena marratuta agertzen da. Erreserba taldearen ekarpenetatik iruzkin bat atera da, kolore gabekoa

## A multzoa: Udalerri-eredua

### A.2. Nahi dugun udalerri-eredua.

Un municipio basado en un modelo sostenible que mejore el bienestar de su población, **protegiendo y potenciando** los espacios verdes, zonas rurales, movilidad sostenible y eficiencia energética. Un modelo que permita garantizar oportunidades a las personas jóvenes con vocación para dedicarse a las actividades agroalimentarias (sector primario), recuperar las viviendas y lonjas vacías e ir introduciendo conceptos de eficiencia energética en las viviendas existentes, en los medios de transporte (bicicleta, transporte público ~~inter~~urbano), y estar atentos al desarrollo de posibles aplicaciones de energías alternativas.

El modelo de ciudad mixta es el objetivo a conseguir (en la mayor medida posible) dentro del actual suelo urbano, con actividades económicas (mayoritariamente servicios) y viviendas en un entorno urbano que debe potenciarse (en las unidades de ejecución que aun quedan por desarrollar,-redesenficación en suelo urbano-) generando espacios verdes, que a su vez se conecten con otros espacios verdes nuevos (junto a otras unidades de ejecución de suelo urbano que en su momento se redensifiquen) a través de itinerarios ciclables (bidegorris) y peatonales que a su vez unan los nuevos espacios verdes con los ya construidos en suelo urbano.

*Desde Getxo nuestra aportación a un "Uribe Kosta mixto" y diverso debiera centrarse en tres líneas fundamentales: 1. Promover los servicios y actividad comercial compatible, en los centros urbanos y barrios urbanos del municipio. 2. Proteger de la urbanización todas las zonas y tierras adecuadas para el desarrollo del sector primario, y promover esta actividad y su legado cultural. 3. Para no reforzar el carácter de ciudad dormitorio y no acentuar el desequilibrio existente, limitar el perímetro urbano a la realidad física actual, y dar carpetazo definitivo al PGOU del 2001 y al PTP, planes expansivos elaborados en pleno apogeo de la burbuja inmobiliaria.*

Una ciudad de servicios de valor añadido, comercio especializado, ingenierías, consultoras, banca, turismo especializado (cruceros, gastronómico,..), hostelería, deportes, música.... unido a un entorno medioambiental muy cuidado, que dará mayor calidad de vida y oportunidades, a las personas que decidan vivir en Getxo.

## B multzoa: Hiri-hazkundea eta -dentsitatea

### B.1. Hiri-egitura trinkoak edo zabalak

Entender el crecimiento como satisfacción de las necesidades humanas, de las generaciones presentes y futuras, asociado indisolublemente a la sostenibilidad y respeto del medio ambiente. Tenemos que cuantificar lo más científicamente posible nuestras necesidades asociadas a la demanda de vivienda, trabajo, comercio, ocio, etc.,...y todo ello sin hipotecar los recursos de las generaciones venideras.

El urbanismo debería favorecer el crecimiento de la riqueza del territorio, con un crecimiento cualitativo y no con el crecimiento cuantitativo practicado hasta el momento. Limitar el crecimiento del suelo urbano. El futuro

PGOU no se debe ejecutar en términos de crecimiento, sino en términos de **transformación**, de lo que ya tenemos, intentando corregir errores pasados, basados en modelos de ciudades extensas.

## B.2. Hiri-lurzoruaren dentsitate-tipologia

A pesar de que lo ideal es una densidad media, se debe tener en cuenta que las densidades apropiadas varían en función de las distintas zonas de Getxo y hay que adaptarlas a su entorno y necesidades. Además se deben considerar los factores económicos y sociales.

El suelo urbano del municipio (y en conjunción con la especial distribución geográfica de Getxo) está saturado y no admite aumentos de densidad sin sacrificios en la calidad de vida.

## C multzoa: Lurraldearen antolamendua

Nuestro municipio soporta y se beneficia de la proximidad al aeropuerto, de viales de máxima densidad de tráfico (Uribe Kosta, La Avanzada), del Metro, de la carretera de la Ría, del Puerto, de las Playas y todas estas Infraestructuras solo se pueden regular, proteger y equilibrar su uso desde una perspectiva Global de una conurbación interrelacionada donde habitamos un millón de habitantes y no solo los 80.000 de Getxo.

## F multzoa: 1. Fasearen lantaldearen zuzenezko ekarpenak

6. El PGOU debe **facilitar** espacios para la implantación de actividades económicas que creen empleo, **respetando el territorio y que sean compatibles con un modelo de ciudad compacta con usos mixtos (vivienda, trabajo, ocio,...).**

5. El PGOU **debe tratar de mantener sin transformación** el suelo de AndraMari, **para mantenerlo sin transformar y** con todo su valor y riqueza ambiental.

2. El PGOU debe responder a la necesidad de mantenimiento de población, **(sobre todo generaciones jóvenes) por medio de la promoción de políticas de vivienda de protección a precios asequibles, y facilitando el acceso al parque de viviendas vacías. Además, el PGOU debe fomentar la rehabilitación, reacondicionamiento y planes de adecuación del parque actual de viviendas.**

4. El PGOU debe procurar ocupar primero el suelo vacante dentro del suelo urbano **(sobre todo de Las Arenas y Algorta)** (unidades de ejecución no gestionadas todavía) redensificándolo para darle mayor acogida, **teniendo en cuenta los servicios y dotaciones necesarias (educación, asistencial, servicios sociales, etc.)**

8. El PGOU debe potenciar la vivienda protegida, **sobre todo en régimen de alquiler y promoviendo a su vez opciones de vivienda que se adapten a las necesidades de las personas y a sus recursos económicos.**

**Iruzkin orokorretatik ateratako proposamen berri bat.**

Realizar el esfuerzo por el mantenimiento de los ecosistemas y de la biodiversidad en Andramari (ámbito del futuro desarrollo urbanístico) debe ser máximo por parte de la administración local, en la seguridad de que la conservación de los entornos mencionados es absolutamente compatible con un proyecto urbanístico equilibrado y sostenible que satisfaga la necesidad real de vivienda de los vecinos de Getxo, en armonía con el medio ambiente, todo ello, sin que las generaciones futuras de Getxo se vean privadas de toda esta riqueza ecológica y de su efecto beneficioso.